



AHTren obrak gaitzesteko deialdia

TOLOSALDEA ▶ AHT Gelditu! Elkarlanak manifestaziora deitu du hil honen 10ean, Donostian

ALDARRIA ▶ «Desadostasuna» azalduko dute, 'Arrazoi guztiak ditugu: AHT gelditu' lelopean ▶ 6



Joxean Tolosa. JOXEMI SAIZAR

JOXEAN TOLOSA ▶ PILOTARI TXAPELDUNA

«Finala estua izango den arren, Irujok alde pixka bat dauka»

Gaurko Olaizolaren eta Irujoren arteko finalari buruz aritu da ▶ 7



J. ASTIBIA



Festa giroa izan da nagusi bi auzoetan

TXARAMA-IZASKUN ▶ Txaraman herri jaia izan zuten atzo egun osoan; Izaskunen aizkolarien deman Olasagasti nagusitu zen Otaño eta Lasaren aurka; bihar eta etzi jarraituko dute bertan jaiek ▶ 4



LSB LANBIDE HEZIKETA: LA SALLE-BERROZPEN

Goi Mailako Zikloak:
Administrazio
Mekanika
Elektronika

Erdi Mailako Zikloak:
Merkataritza
Elektromekanika

Lanbide hastapena:
Elektrizitatea
Elektromekanika

Zure etorkizuna, gure erronka
Laneratze maila: %100

La Salle etorbidea, 5
Andoain
Tel.: 943 590557
www.lasalleberrozpe.com

Ekainak 1etik - 7ra
aurrematrikulak

www.saldias-miguel.com

SM Saldías Miguel
ASEGURUAK

- Tolosa 943 65 11 89
- Beasain 943 08 56 00
- Orain Anoetan 943 69 80 04

Kotxe, motor eta furgonetak -% 60

Etxebizitza, komunitateak, komertzioak, enpresak,...

TOLOSALDEKOHITZA.
INFO ▶Zeren falta
sumatzen duzu
herriko jaietan?

Nik berbenak botatzen ditut faltan. Lehen sekulako giroa izaten zen, eta hori galdu egin da. Pena bat da.

- ▶

Nik ere faltan botatzen ditut berbenak. Nire ustez, talde ezagun bat ekarri beharko zuten, eta ondoren berbena. Egitaraua ere pixka bat aldatuko nuke urteroko berdina baita, aldatzen dena gaueko taldeak dira. Txosnak ere faltan botatzen ditut, horrek eramaten gaitu hainbat gazteri Hernanira joan behar izatea, herrian txosna giroa ez baitago.

21 URTE ▶

Musika talde on bat ekartzea ondo egongo zen, eta ez Coti eta horrelako *mierdak!*

KOTO MATAMOROS ▶

Gazte guztiak Hernanira joateko ohitura hartu dute. Eta gainera Tolosan ezer ez dagoela esaten dute. Ba hemen (Tolosan) geratu eta zerbait lortuko dugu guztion artean, txosnak jartzea, adibidez, denon esku dago, eta ez bakarrik eragileen esku. Argi baitago sanjoan txosnarik gabe... Kixton gau giroa ta gu taberna zuloetan sartuta! Baina Udalak beste aldera begiratzen du, beti bezala!

- ▶

Egia da txosnena. Festa guztietan kristoren giro ona jartzen dute txosnek. Inauterietan, adibidez, jartzen dira, baina ezin dugu haiez nahi beste gozatu, urtearen garaia hotz handia egiten duelako. Eta sanjoan ederra izango zen, ba, txosnak egotea! Klean, gau giro ederrean, eta musika onarekin! Ze bestela, egia esan, Tolosako tabernen musikak asko du hobetzeko...

TXOSNAK ▶

Esaten duzue berbenen falta sumatzen duzuela. Baina gero nik festetan ez dut ikusten jendeak dantza egiten duenik. Lehen gehiago egiten zen dantzan plazetan eta, baina gaur egun... Gazteoi lotsa ematen digula ematen du... Tolosako eta Ibarako koadrila egunetan ikusi dut jendea dantzan plazan, eta herri txiki batzuetan. Bestela, oso gutxitan. A, eta aurrekoak arrazoi du. Tabernetako musika aldatuko balute...

DANTZAZALEAK? ▶

LEHEN ETA ORAIN ▶



Tolosako Leidor aretoaren aldaketa nabarmenenak

Erredakzioa ▶ Tolosako zinemazale talde batek antolatutako proiektioekin agurtu zuten tolosarrek Leidor aretoa, 2005eko uztailan. Egun aretoa birmoldatzeko lanek aurrera jarraitzen dute. Berritze lanak hiru ardatzetan oinarritu dira: erosotasunean, akustika eta klimatizazioa hobetzeko helburuarekin; egungo beharretara egokitzean; eta lehen baino eszenatoki handiagoa egitean. Hala, Gipuzkoako bigarren eszenatoki handiena izango da Leidorrekoa: aurrekoak 20x9 metro zituen, eta berriak 12x14 metro izango ditu;

sakoneran, 14 metro izango ditu oraingoak, aurrekoak baino 5 gehiago; eta zabaleran, 8 gutxiago. 1.000 eserleku izatetik 880 izatera pasatuko da; 18 bereziak izango dira, eta haien arteko tartekak 20 zentimetrotan zabaldu dituzte (goian, Leidor jendez gainezka, *Eneko Aritza* filmaren estreinaldian; behean, joan den asteko lanak). Klimatizazio sistema eta sabai berriak ere jarri dituzte. Ofizialki irailaren 8an inaguraturako dute aretoa, Euskadiko Orkestraren emanaldiarekin. I. ETXEBESTE / N. LATABURU

UZTURRETIK ▶ AGUSTIN AMIANO

Kukuaren laugarren hegaldia



Kuku, kuku! Hurbildu da kuku txori fimiñoaren habiara, aukeratu du gaitzetsitako arrautza eta amildu arazi du inongo gupidarik gabe. Orain habian sartu da eta lokatu den itxurak egingo ditu. Ez ordea, ez da lokatu, ezta

erotu ere. Bere nagusitasuna adierazten duen seinalea utziko du, gainontzeko kumeak zanpatuz haziko den txito kirtena.

Laugarren urtez egin du gauza bera eta dotore paseatuko da herrian, ez du inor askok ikusiko ordea, ezkutuan hegaldi laburrak tartekatzea nahiago izaten baitu. Eta ezkutuan prestatuko ditu bere bidaiak, isilka antolatu ondorengo ekin-tzak, bere gogokoak kontuan hartuko ditu soilik eta besteak ahaztu. Eta lodiago agertuko da datorren udaberrian, habia

ugari okupatzeko prest, hegazti txikien borondatea xahutuz.

Kuku, kuku! Egin du apustu. Habian bera bakarrik agertuko da, jana ematen dion gajoa baino askoz handiagoa. Eta barre egingo die habiatik bota dituen senide errukarriek, ez ditu habiara gonbidatuko, bera bezalakorik inor ez baita.

Kuku, kuku! Harria ezin urtu. Presa du aurten kukuak. Zer astindu du hain bizkor? Hiru urtetan egin ez dituenak batean egin nahi ditu; edo okerrago oraindik,

hiru urtetan ausartu ez dena amaieran ezarri nahi ote du? Datorren urtean berak bere habia egin beharko du noski. Hala behar, behintzat. Guztien asmoak bultzatzeko garaia badator, ideia berriak agertzeko aukera, baztertua ez sentitzeko unea.

Ikasgai gogorretik ere ikasi egin ohi da eta txori guztiak dira orain jakitun. Plaza-ara begira daude, basoa utzi nahian. Kukuari kukurruku egiteko prestaketa lane-tan.

ESANAK ▶



XABI ALONSO
FUTBOLARIA

«Realean Liga irabaztekotan izan ginen denboraldia ez dut sekula ahaztuko. Gustatuko litzaidake Liverpoollekin lortzea, baina ez da gauza bera izango. Realarekin Liga irabaztea ez nuke beste ezerrekin konparatuko»

«Burua ezinbestekoa da kirolean. Gauzak oso ondo eginda ere, buruak ez badu laguntzen, oso zaila da dena ematea»

«Ez nuen pentsatzen hain denbora gutxian hainbeste titulu irabaziko nituenik. Baina dena oso ondo joan zait»

«Mundiala jokatzeko lorpen handia da niretzat»

IRITZIA ▶ KIKE AMONARRIZ

Harreman-saria harreman-sarearentzat

Aspaldi irakurri nion Joan Fuster soziolinguista eta pentsalari valentziarrari: «Hizkuntza komunitate bat, funtsean, harreman sare bat da».

Iradokizunez beteriko ideia suertatu zitzaidan. Izan ere, zer dira euskalkiak, harreman-sare batzuk moldaturiko hizkerak baizik? Harreman-sare horiek argituko ligukete, seguruenik, zergatik diren diferentek Tolosaldeko eta Leitzako euskara, edo gurea eta Azpeitiko edo Goierrikoa.

Harreman-sare hauek aldatzen joan dira historian zehar: errepideak, ibilgailuen abiadura, lanerako aukerak... Tolosaldean, esate baterako, Tolosaren garrantzia eta herriekiko harremanak asko aldatu dira: gero eta jende gehiagok egiten du lan eskualdetik kanpo. Tolosatik herrietara eta herrietatik hirietarako migrazioak, aisialdia betetzeko ohiturak...

Batzuetan, eskualde bateko herri baino, hiri handiago baten auzo sentitzen gara. Eta ez nuke garbi jakingo Euskal Herri barruko *hiri* hori identifikatzen. Donostia? Beterri-Donostialdea? Gipuzkoa? Eta gero eta auzo-herri gehiago dituen auzo-herri bat gehiago ere bagara. Eman buelta bat San Frantziskotik asteburuan; ea zenbat hizkuntza desberdin entzuten dituzuen.

Historian atzera begiratu gero, oharuko gara, Euskal Herri osoan bezala, hemen ere, kalea euskaraz mintzo arren, euskara ez dela agertzen historia ofizialean. Gure arbasoek gaztelania zuten goi-mailako hizkuntzatzat eta ez dirudi asko kezkatzen ziren euskarak maila ofizialean izan zezakeen presentziaz. Eta euskarak atzera egin

zuen. Badakigu 1791n bidaiari frantziar batek Tolosan egin zituela «*8 meses aprendiendo la lengua castellana*» edo 1921ean haur guztiek kalean erdaraz egiten zutela. Txirritaren hitzetan esanda: «Erdara ez zen bakarrik kapaz, euskarak lagundu dio».

Eta, hala ere, Euskara onaren mitoa sortu zen. Nork eta noiz ez dakigu, baina arrazoi batzuk usaindu daitezke: Tolosaren zentralitate geografikoa, politikoa, ekonomikoa eta administratiboa, inprimategiak, komertzioa, industria... Hipotesi bat zabalduko dut: *Tolosako euskara ona*-ren mitoa bertako burgesiak sortu zuen (*goiko*-en euskara zen ona), baina belaunaldi batzuk beranduago klase horrek berak baztertu zuen euskara. 1986ko erroldaren datuez osaturiko Soziolinguistikazko Mapak datu harrigarri bat eman zigen: jatorriz euskaldunen artean, euskara galdu zutenen portzentajerik altuena Gipuzkoan, Tolosakoa zen (%63k zuen euskara ama-hizkuntzat, baina euskaldunak %56 besterik ez zitren).

Baina Mitoak jada ez du zentzurik. Bide luzea dugu egiteke, baina asko aurreratu dugu. Hemendik kanpo, maiz aipatu izan dut, 14 urte nituenean, Tolosan ez zegoela kalean euskaraz egiten zuen gazte koadri-

larik eta herrietatik zetozen ikasle euskaldunei trufa eta iseka egiten genielana. Gaur egun, ordea, euskararik ulertzen ez duen haurrik ez dago jada eskualdean, eta euskara, Tolosaldeko etxe, kale eta esparru publiko zein pribatuak berreskuratzen ari da.

Aspektu hauek nabarmen uzten dute nolakoa izan den Tolosa eta eskualdearen arteko harremana: hiria vs. herriak, komertzioa/industria vs. baserria, euskara vs. erdara, kalea vs. baserria. Auzo herriak arrotz izan zaizkio maiz Tolosari. Bere inguruari bizkarra emanda bizi izan da eta ez du eskualde kontzientziarik izan, edo okerrago dena, herri txikiak mespretxatu egin ditu.

Testuinguru honetan, esango nuke, eskualde kontzientzia garatuago dagoela euskaldunen artean erdaldunen artean baino; eta hizkuntza-komunitatea trinkotu eta osatzerik begira hain baliagarria den harreman-sare horren kontzientzia soziala, batez ere, euskarazko hedabideek bultzatu dutela gurean. Tolosaren berreuskalduntzean eskualdeko hiztunen ekarpena guztiz beharrezkoa baita, kantitatez ez ezik, kalitatez. *Galtzaundi* izan zen bide urratzaile eta Txolarrek eta Hrtzak indartu eta sendotu egiten dute bide hori.

Baina harreman-sare hori indartzeko, harreman-saria ere behar du oraingo honetan. Eta urteko sari hori ordaintzea badagokigu irakurleoi ere. Eskualdeago eta euskaldunago izaten laguntzen digun HITZAREKIKO harremana, beraz, ez eten. Zurek dira hitza eta HRTZA, irakurle.

HARREMAN-SARIA

«Eskualdeago eta euskaldunago izaten laguntzen digun HITZAREKIKO harremana ez eten»

iragarki laburrak ▶

<p>LANPOSTUAK Haur eskolak. Haurren zaintzaile eta hezitzaile postuak bete behar dituzte. 943 31 37 82. Garbitzaileak. Hurrengo deialdiak udaletarako eta ikastetxeetarako. Informazioa doan: 943 31 37 82. Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Soraluze,</p>	<p>Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Udalek administrari laguntzaile postuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82. Bereoren arreta. Aireportuetarako plazak libre. 943 31 37 82. Gidariak. Eusko Jaurlaritzarako eta udaletarako behar dira. 943 31 37 82.</p>	<p>Udalak. Lorezainak, elektrizitastak, iturginak, administrari laguntzaileak, atezainak. Udaletarako postu horiek bete behar dituzte. 943 31 37 82. Sukaldariak. Sukaldariak eta sukaldeko laguntzaileak behar dira egoitza, erietxe eta ikastetxeetarako. 943 31 37 82. Lanpostuak. Igeltsero,</p>	<p>elektrizista, iturgin, pintore lanpostuak. Udaletarako plazak libre. 943 31 37 82. Gipuzkoako Foru Aldundia. Sukaldari laguntzaileak, obra zaindariak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak, garbitzaileak behar ditu. 943 31 37 82.</p>
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

TXARAMA-IZASKUN ▶ JAIK

Txaraman bukatu badira ere, Izaskunen jai giroa oraindik

Izaskun gaineko larreetan gaur-biharretan bada zer ikusi eta zertan parte hartu; Atzo, aizkoran Olasagastik irabazi zien Otaño-Lasa bikoteari, 01:52ko aldearekin



Izaskun. Olasagasti, Otaño eta Lasa, beren saioa hasi aurreko beroketetan. J. ASTIBIA



Izaskun. Ostolaza lanean, Telleria laguntzailearekin. J.A.



Txarama. Toka txapelketarekin hasi zituzten jaiak. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Txaraman eta Izaskunen festa eguna zuten atzokoa. Gaur-biharretan ere, halaxe izanen dute Ibarrauko auzo garaieko larreetan: beraz, izanen da ikus-kizunik berriz ere.

Atzokoan, txaramarrak izan ziren goiztiarrenak, patxada-tsu, eguerdi aldera toka txapelketa egin zuten, herriko 16 lagunek parte hartu zutelarik. Haurrek ere buruhandi batekin jostatzeko aukera izan zu-

ten. Bitartean, etxeetan, patata-tortilak eginez joan ziren, gero-ko bazkaritarako.

Arratsaldean, berriz, herri kirol jaialdi ikusgarria izan zen Izaskungo zelaietan; ikusmin handia eragin zuen aizkora apustua tarteko zela: Olasagastiren eta Lasa-Otañoaren arteko lehia, orain bi hilabete egindako apustuaren erreban-tza, alegia. Eta horixe gertatu zen: Igeldokoak 01:52ko aldeak kendu zien gazteei, apustuan ez bezala. Lanerdietan enbor

IZASKUNGO JAIK ▶

GAUR

12:00. Herri kirolak: Izaskun-Urnieta.

14:30. Herri bazkaria. Ondoren, Peñagarikano eta Irazu bertsolariak.

17:30. Etxabe anaiak trikitilariak.

18:30. Sokatira saioa, auzoko zahar eta gazteen artean.

Ondoren. Txerrikume harrapaketa eta auzokoan arteko korrika-apustua.

20:00. Etxabe anaien trikitilari saioa.

BIHAR

10:00. Diana trikitilariarekin.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Hamaiketako herrikoia.

13:00. Bertso saioa, Mendiluze eta Lizasorekin.

17:00. Alurr dantza taldearen saioa. Ondoren, goxokiak haurrentzako.

18:30. Bertso saioa, Mendiluze eta Lizasorekin.
19:00-20:30. Erromeria eta festen amaiera.

bateko alde irabazita zuen Olasagastik; herriko semearen txandan, Otañoak, alegia, gertu-gertutik jarraitu zion arren, azkenik garaipena igeldoarrantzat izan zen.

Ez zen herri kirol ikuskizun bakarria izan. Irigoten eta Ostolaza harri-jasotzen aritu ziren; tarteka, ahariak talkan ikusteko aukera ere izan zuen bertan bildu zen jendetzak.

autonomezentzako eta mikrespresentarako doako mintegiak

Enpresan denbora eta baliabideak nola banatu

Gure denbora eta enpresako baliabideak egoki kodetzeko modua erakutsiko dizugu. **Koordinatzaile, gerriagoko ikusleak eta erakutsitako eta baliabideak erabiliz erakutsiko denbora eta dirua aurreratzeko, kostu baxuko salbeteak (batzua doakoak ere) erakutsiko ditugu.**

Tolosaldeko ekainak 8 **TOLOSA**

Tolosaldeko L.H. Institutua

Orautegia: 18:00-20:00

Interesatuak eta beste informazioa: **943 747 314**

www.mintegiadigitala.com

formaz@mintegiadigitala.com

Partekatu:

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Pertsona bat behar da taberna batean lan egiteko. Interesatuak deitu 615 78 90 06 telefono zenbakira.

SALGAI

Pisua. Leitzan, 100 m²-ko pisua salgai. Igogailuarekin eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Interesatuak deitu 699 46 13 65 telefono zenbakira.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Urtebete pasatxo igaro da Tolosako gerontologikoa itxi zutenetik. Gerontologikoa aldea plataforma irtenbide bila ari da gerotzik. Orain Udalak proiektu berri bat aurkeztu du. Zein iritzi duzu guztiaren inguruan?» Parte hartu proposaturiko eztabaidan!

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!

HELBIDERATU ZURE KUOTA

EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTEKO AUKERA

egunean 0,18 zentimoren truke buzoian

KULTURA ▶

Kulturaniztasunaren gogoetarako lana

Aurelio Vicentek 'Ipuinartean I' bideo lana aurkeztu du

ERREDAKZIOA

Herenegun aurkeztu zuten Tolosako Kultur Etxean Aurelio Vicente artista tolosarrak eginitako *Ipuinartean I* bideo lana, «elkarrizketa eta irudi metaforikoen bidez kulturaniztasunaren gogoeta izan nahi duen lana». *Ipuinartean* egitasmoaren —bere sorreran Irazki elkarteak bultzatu zuen ekimena, eta hura desagertu ondoren, egun Ereite elkarteak hartu du lekukoa— baitan eginitako lan honetan immigrazioaren auzia eta gaur egungo egoera aztertzen dira. Dokumentala eta erreportaia bezalako generoak nahasten ditu, baita zineman erabiltzen den estiloa ere. Bertan musika osagai ezinbesteko bihurtzen da bitartekari bezala duen garrantzia dela eta. Edukiak, hiperteknologiak eta immigrazioak eragindako gizarte aldaketari egiten die erreferentzia, eta egileak dioten moduan, «bere helburua ikuslearengan galderak eta elkarrizketa sortzea da».

Tolosako 750. fundazioaren baitan sorturiko *Ipuinartean* ekimenak, erakusketa ibiltari baten bitartez, 36 artisten lanak bildu ditu, euren jatorrizko kulturarekiko desberdina den beste baten ipuin kontaketa oinarrituak. Bere helburua, egun Tolosan bizi dugun errealtate kulturanizta irudikatzea, eta etorkinei bertako bezala sentiaraztea izan da.



Azoko bideo lanaren aurkezpeneko une bat. I. TERRADILLOS

TOLOSA ▶ GIZARTEA



«Agerian jartzeko garaia da»

Erredakzioa ▶ Hilaren 28an izango den Gay eta Lesbianen Harrotasun Egunaren harira, Gehitu, Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu Tolosan. Atzo, bisibilitate autobusa izan zen goiz osoan; hala, Iñigo Lamarka elkarteak presidentea bertan zela materiala banatzen egon ziren. Arratsaldean, Gehituko abesbatzaren doinuak entzuteko aukera izan zen. Gaur, 19:00etan, Cristina Castillok *Ser o no ser... visible* antzetzuko du Kultur Etxean. ESTI EZEIZA

Tolosaldeko Telefono Listin berria egiten ari gara. Komertzio bat badezu, laister **TU Comunicacion**-eko bisita bat edukiko duzu. Hau da gure lazko portada, ez nahastu!!!

Hala ere, bertan publicitatea egin nahi badezu, **943214141 / 639200887 / 639200898** deitu dezakezu.

TOLOSA
TXINERA FRANTSESA ARABIERA
ALEMANA ITALIERA

2006-2007 IKASTURTERAKO TALDE BERRIAK OSATZEN HASI GARA.
INFORMAZIOA: 943 674733

Tolosako Udala
IRAGARKIA

“EDUARDO MOCOROA” UDALEKO MUSIKA ESKOLARAKO ALDIBATERAKO KORALEKO IRAKASLE BAT HAUTATZEKO DEIALDIA

Tolosako Udalak konkurso-oposizio bidez koraleko irakasle bat aukeratu behar du, lanpostua betetzen ari dena gaikotasun baxa zein amatasun baxan dagoen bitartean betetzeko.

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udaleko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura. Plaza Zaharrako 6 A zkin, edota udaleko web orrian (www.tolosakoudala.net).

Eskaerak aurkezteko epea 2006ko ekainaren 14an bukatzen da, eguerdiko 13:00tan.

3. hizkuntza eskakizuna aurkeztu ez dutenentzat, euskarazko frogak ekainaren 16an, goizeko 9:00tan egingo da udallexean.

Tolosan 2006ko ekainaren 1ean, ALKATEA, JOKIN BILDARRATZ SORRON

TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzaren Laguntza.
- Farmazia.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Diagnosi Irudiak.
- Osasun Dokumentazioa.
- Gizarte Integrazioa.

AURREMATRIKULA: MAIATZA

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA
Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

udaberriko eskaintza handia

PortAventura 188€ (31.28€ gisa)

TermoEuropa Boina-etxea 105€ (17.47€ gisa)

Valentzia: artez betetako bisita 54,90€

Playa de las Americas 332€

Cantabria 48€

Marbella 65€

EROSKI bidaiak
merzei duzu

AHT ▶

AHTren obren hasiera gaitzesteko, hilaren 10ean, manifestazioa

17:30ean, Donostiako Anoeta estadioan emango zaio hasiera, 'Arrazoi guztiak ditugu: AHT gelditu' lelopean



AHT gelditu! Elkarlanean plataformakoak, atzoko prentsaurrekoan. E.E

ESTI EZEIZA

Arrazoi guztiak ditugu: AHT gelditu! lelopean, manifestazioa deitu du AHT gelditu! Elkarlanean plataformak. Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak *Euskal Y* sarea eraikitzen hasteko hartu duten erabakiaren aurrean, erabaki honekiko herritarrek duten «desadostasuna» adieraziko dute, hilaren 10ean, arratsaldeko 17:30ean, Donostiako Anoeta estadioan abiatuta.

Plataformakoekin ustetan, «Espainiako Gobernuak eta Jaurlaritzak bizkarra eman dio-

te gizartean sortu den eztabaidari eta herri mugimenduak bultzatu dituen mobilizazioei». Honez gain, «herriaren izenean jarduten dutela esaten badute ere, gehiengo soziala eta sindikala AHTren aurka agertu da». Izan ere, AHTren aurkako enbuztuz, «onartezina da», obrak hastea, horregatik, «inposizioari borrokaren eta mobilizazioaren bidez erantzuteko dei egiten dugu».

Atzo eskainitako prentsaurrekoan, AHTren aurka egiteko arrazoiak ere agertu zituzten, «honek ondorio latz eta kalte izugarriak eragingo baititu gure herrialdean».

Hitzaldia

Euskal Herrian ez ezik, beste zenbait herrialdeetan ere egoera antzekoa bizi dute. Adibidez, Val di Susan (Italia), Turin ondoan kokatuta dagoen 350.000 biztanlez osatutako haran txikian. Bertako biztanleak Turin-Lyon arteko AHTren aurka daude, eta honen inguruan hitzaldi bat eskainiko dute asteartean, 19:30ean, udaletxeko Batzar Aretoan.

ANOETA ▶ JAIK

Herri borondatearen aldeko jaiak prest dituzte

Herriko hainbat eragilek eta norbanakok elkarlanean antolatuta 8 eguneko egitaraua

J. ASTIBIA

Datorren ostiralean hasi eta asteburu osoa egin ondoren, eta hurrengo asteazketatik aste amaiera arte, 8 egun beteko egitaraua prestatu dute herriaren borondatearen aldeko jaietarako, Anoetako hainbat eragilek.

Anoetarrok Auzolanean-ek, Anoetako Gazte Asanbladak,

AHT gelditu! Elkarlanak eta Segurik antolatuta dituzte, aurtengoarekin hirugarren urtea izanen duten herriaren borondatearen aldeko jaiak. Atzoko aurkezpenean azaldu zuten «Anoetarrok Auzolanean plataformari dagozkion 4 zinegotzietatik udalean bazterturik jarraitzen» dute, eta «bazterketa horrek udaletik kanpoko jaiak antolatzea bultzatzen» dituz-



Aurkezpenean antolatzaileek eta laguntzaileek parte hartu zuten. J. A.

tela iritzi diote. Era berean, beraien ustez, «Udalak daraman kudeaketa kaxkarrak» salatu zuten, besteak beste «AHTaren inguruko desinformazioa eta kiroldegia itxita jarraitzea» ulertezintzat joz. Horiek

guztiak arrazoitzat hartuta, «herriatik herriarentzat» antolatutako jaiak aurkeztu zituzten «haur, gazte zein helduentzat egokiturikoak».

Festa hauetarako 33 laguntzaile izan dituzte.

AZOKA ▶

Eskaintza zabala izan zen atzoko azokan

Barazkietan, tomatea, ilarra eta babak aipatu behar; onddo zerrenda ere ederra izan zen

PABLO ALBERDI

Eguzkia izan zen nagusi atzo Tolosako azokan. Salmenten erritmoa, nahiz eta joan diren asteakoa ez izan, ez zen txarra izan, eta eguerdi aldean jende dezente zebilen mahaien artean.

Eskaintza ere oso zabala izan zen, eta nahiz eta herrikuntzarik ez izan, produktuen zerrenda oso luzea izan zen. Barazkien artean, aipatzekoa tomatea —dagoeneko izugarriko kalitadeduna—, ilarrak, eta azken babak.

Onddo eta perretxiko zerrenda ere ederra izan zen. 100 kilo onddo 10 eurotik 28 euro arte, zizak dagoeneko bukatzeaz daudenak, 15 eurotik 38 eurora arte, eta ziza horiak 20 eurotan.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Ziklamena	5,00	-
Pensamintoa	1,00	-
Geranioa	1,00	-
Hortentsia	10,00	12,00
Alegria	1,00	1,20

Bertako produktuak		
Onddo	16,00	30,00
Ziza	18,00	35,00
Hurra	2,00	-
Intxaurra	2,50	4,00
Kalabaza	1,50	3,00

Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Baraburia	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Aza	2,50	3,00

urteurrenak ▶

Ina Zeberio

VIII. urteurrena



Gure bihotzean
betiko maite zaitugu.

Lizartzako Ezker Abertzalea

oharra ▶ 13:00etan ekitaldia monolito aurrean

LIZARTZA, 2006ko ekainaren 4a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

JOXEAN TOLOSA ▶ PILOTARI TXAPELDUNA

«Finala estua izango da, baina alde pixka bat Irujok dauka»

Olaizola eta Irujo «aspaldian izan diren izar handienak» direla uste du azken txapeldun ez nafarrak

JOXEMI SAIZAR

Pilotan jokatzeko askotan izan den Beotibar pilotalekuan egin du hitzordua Hitzarekin Joxean Tolosa txapeldunak (Amezketan, 1955). Hitano azkar eta naturalen mintzatu da elkarrizketan.

Eskuz banakako azken txapeldun ez nafarra zara.

Bai, 1989an irabazi nuen. Bizkaitarrik ez da izan Gorostizak 1987an lortu zuenetik, eta Xala lapurtarra finalera iritsi zen, baina ez zuen irabazi.

Nola gogoratzen duzu?

Ikaragarria izan zen. Une berean ez zara konturatzen, tontotuta zaude. Pasatu eta gero baloratzen da. Retegi hor zegoela txapeldun izatea oso zaila zen. Binakako txapeldun izan nintzen bi aldiz Ladutxerekin eta joko handiarekin nengoen. Egun hartan Retegik agian ez zuen puntu-puntu jokatu. Festa handia izan zen.

Zein egoeratan dago pilota Tolosaldean?

Eskola onak daude, delegatuak eta torneoak ere bai. Baina gazteek garai batean baino gutxiago jokatzeko dute pilotan eta zaila da pilotaria ateratzea.

Herrian bertan profesionalak badituzu.

Bai, Saralegi eta Galarza. Saralegi pilotari ona da, baina azkeneko koxka falta zaio. Galarzak ere segitzen du, baina enpresa handietan zorte handirik ez du izan. Gero Berrobiko Altuna ere oso atzelari ona da, baina 24-25 urterekin eman zuen saltoa profesionalek eta beste enpresa txiki horietan, eta hortik atera eta figura izatea oso zaila da. Orain debutatzeko daude Beloso eta Renobales.

Zer diozu gaurko finalaz?

Biak dira pilotari ikaragarriak, aspaldian izan diren izar handienak. Partidu estua izango da, baina alde pixka bat Irujok dauka: indar gehiago, kolpe gehiago, beso freskoagoak. Irujok daukan akats bakarra

TXAPELA

«Une berean ez zara konturatzen, tontotuta bezala zaude; pasatu eta gero gehiago baloratzen da»

TOLOSALDEA

«Pilota eskola onak daude, delegatuak eta torneoak ere bai, baina gazteek gutxiago jokatzeko dute pilotan»

PILOTA

«Orain frontisean askoz gehiago ateratzen da, denbora gutxiago ematen du azkarrago ateratzen delako»

berotasun horretan agian galdu egin daitekeela da. Bestea hotzagoa eta burutsuagoa da.

Zer behar du txapeldunak?

Oso konpletua behar du. Beharrezkoa behintzat, kolpea. Kolperik ez duen pilotaria txapeldun ezin daiteke izan.

Zuk eskuin kolpe ikaragarria zenuen.

Bai, eskuin ona izan dut beti, eusteko gaitasuna eta gero gauza gehiago ere behar da: ibili, defentsa handia, airez asko jokatu behar da orain, gure garaian baino gehiago, pilotak-eta aldatu egin direlako. Orain frontisean askoz gehiago ateratzen da, denbora gutxiago ematen du ibiltzeko azkarrago ateratzen delako. Gurek pisu gehiago hartzen zuten, mugitzea gehiago kostatzen zen, makalago ateratzen ziren.

Materialarekin polemika asko izaten da azkenaldian.

Nik uste aurten isilago gaudela gu ere, prentsa ere isilik dago. Azkenaldian pilotari guztiak



IMANOL GARCIA

izan dira pilota gogorak gusztatzen zaizkienak. Pilotariak horrelakoak tokatu dira, denak indartsuak.

Aurtengo ustekabea Peñagarikano izan da?

Bai, bi urte zerratzen batxean, ez zen normala, eta oraingo txapelketa honetan piztu egin da eta Irujoren kontra jokatu zuen partidua ikaragarria izan zen. Ikusi gabe ez nuen sinisturik jokatu zuena. Eta azken partiduan Belokik egin zuena.

Eta telebistatik, zer moduz ikusten da partidua?

Askok hobetu dira teknika aldeetik, kamarak eta. Lehen atzetik bakarrik hartzen zuten irudia, eta distantziak ez ziren ikusten.

DI-DA BATEAN ▶

Aurrelari onena. Olaizola

eta Irujo. Lehenago, Titin.

Atzelaria. Beloki, urte askotan, eta Patxi Ruiz ere bai.

Boleaz onena. Irujo, Patxi Ruiz, Larralde gaztea...

Dejada, bi paretak. Titin artista da aurreko jokaldietan.

Gantxo. Titin eta Olaizola.

Esku gogorrena. Titiñena, urtero partidua asko ditu.

Mikel Goñi. Pena ikaragarria pilotarentzat, fenomeno handia izan behar zuelako.

Egongo gabirik ala egongo gaituk? Guk beti egongo gaituk esaten dugu.

Zenbat urte dira pilota partiduak transmititzen?

Pilota utzi nuenetik, 1995ean.

Ikasten hor ere?

Bai, aurreneko egunetan lotuta egoten zara, ikara eta errespetua ematen du, baina gero jarri egiten zara. Pentsatzen dudana esaten dut. Batzuetan dena ezin da esan, errespetuagatik.

Zer iruditzen zaizkizu 'Wazemank' telebistatik?

Ondo. Ez dut gehiegi segitzen ordu berean programa dugulako, baina konturatu naiz lehen adineko jendeak telebistatik eta pilotatik segitzen nindutela eta orain herrietara joan eta mutil kozkorrik «eongo gaituk» esaka hasten direla.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Lizartza. Ina-ren VIII. urteurrenean, 09:00etan mendiko marxa Axurdariora; 13:00etan omenaldia monolitoaren aurrean: Txalapartariak, bertsolariak, dantzariak, abeslariak, hizlaria,.... 14:30ean, bazkaria elkartean.
Tolosa. Gehituk antolatuta, Cristina Castilloren *Ser o no ser* antzezlan, Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera, doan.
Tolosa. Aste Berdearen baitan, VII. Uzturre igogera. Irteerak 09:30ean Santa Klaratik eta 10:00etan Izaskundik. Uzturre gainean, txistulariak eta hamaiketakoa.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maite Itxasoren margolanak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.
Ibarra. Hil honen 16ra arte, Angel Cuerdoren *Mundu bete kolore* argazki erakusketa.
Tolosa. *Aterpeak.* Miguel Angel Oriberen eskulturak, Aranburu Jauregian, uztailaren 1a arte.

JAIAK

Izaskun. Izaskun auzoko jaien baitan, 12:00etan, herri-kirolak (Izaskun



Usabal, atzo ere, Eskolarteko Jokuen tenplu

TOLOSA ▶ Hego Euskal Herriko ehunka haur bildu ziren atzo Usabal Kiroldegian. XXV. Eskolarteko Kirol Jokoen azken jardunaldi honetan, 13 eta 14 urte bitarteko gaztetxoak, besteak beste, futboleko, igeriketako, esku pilotako eta saskibaloian lehiatu ziren. Guraso, lagun, irakasle eta entrenatzaile ugari etorri ziren atzo, kirolari txikiak animatzeko. Denera, hiru jardunaldik osatu dute txapelketa, eta Hego Euskal Herriko 1.615 nerabe hartu dute parte. ESTI EZEIZA

Urnietaren aurka); 14:30ean herri bazkaria, Peñak eta Irazuk alaituta; 17:30ean Etxabe anaiak trikitaliak; 18:30ean auzoko zahar eta gazteen arteko sokatira; ondoren, txerrikume harrapaketa eta auzokoan arteko korrika apustua; 20:00etan, Etxabe anaiak trikitaliarren bigarren saioa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Morant, R. Zabalaretza, 1. 943 67 38 49.
Leizta. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

Bihar
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale nagusia 7. 943 67 06 48.
Areso. Goizueta, F. Loidi ebea. 112.

IRRATIA

Txolarre irrati (107,5, 101,2 FM)
Gaur
10:30-13:00. *Hitza* hegan magazina (errepikapena).
Bihar
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, HITZAREN errepasoa, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskaniak...
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Argizirin aitaldia*, Xorroxin irratiaren saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Miia esker.
Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea

URTE ASKOAN
Katalina Karrera.
Bihar urtebetetze eguna.
Zorionak familiarren partetik.

URTE ASKOAN
Amona Ana.
Zure biloben partetik.

URTE ASKOAN
Garazi (Aitza).
Bihar 5 urte. Urte askotarako. Etxekoan partetik.

AIAIA Karlos Arguiñanoren Sukaldaritzako Akademia

- 2.000 ordu
Gradu ertaineko formakuntza zikloa -sukaldaritzako teknikoak.
Ciclo formativo de grado medio -técnico en cocina.
- 1.000 ordu
Masterra Europako gastronomian.
Master en gastronomía europea.
- 30 ordu
Udako sukaldaritzako eta gozogintzako ikastaroa.
Curso cocina y repostería de verano.

Urdaneta bidea, 5 20800 ZARAUTZ
tel.: 943 13 46 00 ■ www.aiala.es

hitza **Harpidedunen txokoa**

Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabea emango dizu

- 1 Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat
- 2 Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!

PARTE HARTZEKO:
Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza • Araba etorb. 5 • TOLOSA**
Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAN **ZORTE ON!**

1 TENERIFERA BIDAIA
2 lagunentzat astebeteko egonaldia

2 OTORDU EDERRA
2 lagunentzako Tolosako Zumeta jatetxean

LAUTREK bidaia agentzia
korreo kalea, 52 • TOLOSA
Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21
Faxa: 943 67 39 12
zure neurritako bidaliak antolatzen ditugu

Bete zure datuak

Harpidedunaren kodea.....
Izena.....
Abizenak.....
Helbidea.....
Herria.....P.K.....
Telefona.....
Pelektronikoa.....

Berjaldegi Plaza, 2/g • Tolosa
Tel.: 943 88 28 93